

Donostia, 2018ko apirilaren 20a

## IDAZKARI NAGUSIARI

### SAN ANTONIO GALTZADARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa hil honetako GUNE PUBLIKOEN Batzordean SAN ANTONIO GALDATZARI buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

## JUSTIFIKAZIOA

San Antonio galtzadak Herrera lotzen du izen bereko kalearen goiko zatiarekin, Montesol deritzon etxe taldearekin eta Intxaurrondo auzoko beste gune batzuekin. Gaur-gaurkoz, galtzada hori oztopo bat da jende askorentzat, dela duen malda handiagatik, dela duen egoeraren ondorioz.

Herrera auzoak garraio publiko bidezko oso konexio ona du ekialderantz eta mendebalderantz, Renfeko eta Euskotreneko geltokiak dituelako, eta Dbus eta Ekialdebus autobus lineak ere igarotzen direlako. Hori dela eta, San Antonio galtzadaren irisgarritasuna hobetzeak indar bikoitza izango luke; alde batetik, oinezkoen mugikortasuna hobetuko luke, eta bestetik, aurrez aipatu ditugun guneetan bizi den jende askorentzat Herreran dagoen garraio publikoko sare zabala erabiltzea erraztuko litzateke. Horrez gain, inguru hartako merkataritza biziberritzen ere lagunduko luke, goiko aldean bizi direnei iristeko erraztasuna emango litzaiekeelako, han dendarik ez dagoenez gero.

Izan ere, EAJ-PSEren gobernatzeko programako Mugikortasuna eta Garraioa atalean ere "Oinezkoentzat hiria irabaztea" barne hartzen da: *"Herreran, Bidebietan, Gaiztarroren eta San Antonio auzoaren arteko oinezkoen loturei dagokienez lan egingo dugu"*. Hau da, tokiko gobernuak ere modu esplizituan aitortzen du eremu horrek duen hobekuntza beharra.

Auzi hori Udalbatzaren batzordeetara eraman genuenean, zinegotzi ordezkariak erantzun zigun ez zegoela gai horri zegokion berririk; udal gobernua bere gobernatzeko programa betetzeko asmoa duela, baina ez dagoela horri buruzko proiekturik, eta lizitazio fasean ere ez dagoela.

Agintean hiru urte igarota, uste dugu ordua dela udal gobernua bere programa betetzeko proposamen bat aurkezteko, eta Herreraren eta San Antonio auzoaren arteko oinezkoen loturak errazteko, inguru horretako bizilagunek aspalditik aldarrikatzen duten moduan.

Aurrez aurkeztutako guztia dela eta, honako kontrol mozioa aurkezten dugu:

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio aurkez dezala Herreraren eta San Antonio auzoaren arteko oinezkoen loturak hobetzeko proposamen bat.

Sin.: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.